

ELKARRIZKETA: Maialen Lujanbio

«Saioa bukatzean, nerearekin erabat
konforme geratu nintzen» /4-5



Kronika eta Berriaken saskien zozketa gaur eguerdian, Biterin

HERNANIKO Kronikak eta Berriak elkarteak elkarlanean, Gabonetako lau saski zozketatuko dituzte gaur eguerdian. Zozketa Biterin izango da, gaur eguerdiko 12:00etan. Saskiak opariz beteta daude, eta sari guztiak Berriak elkarteko kideek jarri dituzte. Lau saskietan banatuta, produktu eta zerbitzuetan, 50etik gora sari bildu dira. Kronikak eta Berriak herriarrak gonbidatzen ditu zozketara joateko. ||

Bolako Olentzero Saria jokatuko da gaur Zerainen

BOLARIAK zorioneko dira gaur, tiraldia izango baita Zerainen. Olentzero Saria jokatuko da, arratsaldeko 16:00etatik 17:00etara. Sariak aurreneko laurentzako izango dira: lehenengoak 70 euro olentzero eta %40a jasoko ditu; 2garrenak 60 euro olentzero eta %30a; 3garrenak 50 euro eta %20a; eta 4garrenak 40 euro eta %10a. Urdaiazpikoa ere zozketatuko dute. ||

❖ LANGILE IKASTOLA

Sinadura bilketa gaur Plaza Berrin

Langile ikastola zenbait ekintza ari da burutzen, *Hezkuntza proiektua aukeratzeko eskubidearen alde, inposaketarik ez! 4garren leerroari bai* lemapean. Gaur sinadurak bilduko dituzte Plaza Berrin, eguerdiko 12:00etan. ||

◆ KIROLAK

Gaurko kirol jarduera guztiak bertan behera utzi ditu Gipuzkoako Kirol Federazioak

Elur eta hotz alerta laranja dela deta, Gipuzkoako Kirol Federazioak bertan behera utzi zituen atzo, gaur eta bihar jokatzeak ziren kirol jarduera guztiak. Jokatuko diren jarduera bakarrak Gipuzkoako kirol federaziotik kanpokoak izango dira. ||

❖ URTEKARIA

2009 Urtekaria salgai 8 euroan

Atzo aurkeztu zuten udaletxean 2009 Urtekaria, 23 artikulua eta erreportajez egin. Ohiko puntuetan izango da salgai, 8 euroan. /3

GAUR KRONIKAN

Gabonetako kontzertuak
gaur /2

Jasota Bezala /2-3

Laburrak /2

Kirolak: Erremontea, judoa,
eta futbola /6

Euskal gazteriarri babesa
Argentinatik /8



Txistorrak eta festak goxatu zuen atzoko elur giroa

SANTO Tomas Eguna astelehenean da, baina herrian dagoeneko hasi dira ospatzen. Inmakulada ikastetxeak izan dira aurrenekoak, eta atzo festa giro ederrean pasa zuten goiza, ohiko txistor-jana eta feriarekin. Bihar berriz, Ttarla taldeak antolatuta Plaza Berrin egingo da txistor jatea, eta Sorgintxulon ere izango da. Egunean bertan aldiz, astelehenean, Goiz Eguzkin ospatuko dute. /2



40garren URTEURRENA

40 gabon-zesto zozketatzen ditugu

Eskerrik asko zuen leialtasunarengatik

Ilusioa oparitu ezazu Eguberritan!!

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI

ZORIONAK ETA EGUBERRI ON!!

❖ SANTO TOMAS FERIA

Plaza Berrin eta Sorgintxulon, bihar

Goiz Eguzkin astelehenean ospatuko dute.

HASI dira Santo Tomasak ospatzen Hernanin. Inmaculada ikastetxean esaterako, atzo egin zuten feria. Santo Tomas eguna, astelehena izan arren, San Joan konpartsak eta Sorgintxulo elkarteak ere, bihar ospatuko dute.

San Joan konpartsako ki-deek jakinarazi dutenez, eguraldi kaxkarra iragarri arren, Plaza Berrin izango dira urtero bezala txistorra mokadu ederrak prestatzen, goizeko

11:30etatik aurrera, eta arratsaldean ere giroa bertzeko erromeria izango da Patxi Lopezekin. Herritarrei azaltzeko dei egin diete.

Sorgintxulo auzoan ere, txistorrarik ez da faltako 12:00etatik aurrera. Gainera, aurten, saski eder bat zozketatuko dute elkarteko kideen artean. Kuotaren ordainagiri-an dago zenbakia.

Goiz Eguzkin astelehenean egingo dute txistorrada. ||

❖ BAZKARIA GAZTETXEAN

Urteurrena ospatzeko, bazkaria gaur

Kontrakantxa gaztetxeak hiru urte betetzen ditu aurten, eta ospatzeko, bazkaria antolatu dute gaur, Atsegindegin. Txartela aurretik erosi behar zen. ||

❖ OSIÑAGA AUZO ELKARTEA

Kuota kobratzera pasako dira gaur edo bihar

Urtero abenduan egin ohi den bezala, Osiñaga auzo elkartekoak etxez etxe pasako dira kuota kobratzera. Gaur edo bihar pasako dira. Urteko kuota 10 eurokoa da, eta euro bateko loteriaren partizipazioa dakar. Horrez gain, Gabonetako saski bat zozketatuko dute kuota ordaintzen dutenen artean. Etxean egoteko asmorik ez dutenei eskatu diete ahal izanez gero, dirua bizilagunari uzteko. ||

Mus txapelketa bihar, Olaizolan

Auzoko mus txapelketa izango da bihar, arratsaldeko 16:00etan, Olaizola sagardotegian. Izena bihar, bertan eman behar da. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Sari nagusia bi txerrikume izango dira. ||

❖ GABONETAKO KONTZERTUAK

Ozenki abesbatza eta Musika Banda, Milagrosan

Txistulari Bandaren kontzertua bihar.

AURTEN hirugarren aldiz, Ozenki abesbatzak eta Musika Bandak Gabonetako kontzertua eskainiko dute. Gaur izango da arratsaldeko 19:45etan Milagrosan. Bertan dozentatik gora pieza joko dira.

Bihar berri, Udal Txistulari Bandaren txanda izango da. Kontzertu hori ere Milagrosan izango da, eguerdiko 13:00etan. Txistulari Banda saiatzen da txistuaz gain beste instrumentu batzuk sar-

tzen eta aurtengoan gitarraren laguntza izango du. Susana Elozegi ariko da, Musika Eskolako irakaslea.

Astigarragan ere bai

Bihar, Astigarragan ere izango dira Gabonetako kontzertuak. Bertako abesbatzak, Aiztondok, eta Gernikako Andra Mari abesbatzak gabon kanten kontzertua eskainiko dute elizan, 12:30etan. ||

❖ MUSIKA

Dj rockKaiet gaur, Egiako Bukowskin

Egiako Bukowski tabernan Dj rockKaiet izango da musika jartzen gaueko 23:30etatik aurrera. Besteak beste honako musika jarriko du: rockavilly, rock 'n'roll, garage, rhythm 'n' blues, soul, 70 's funk, deep funk, disco, boogaloo eta grooves. ||

❖ URUMEA IKASTOLA

Eguberriko saskiaren zenbaki saritua 150 da

Urumea Ikastola BHIko Eguberriko saskiaren zozketa egin da eta honakoa izan da saritutako zenbakia: 150. Saskia jasotzeko, astelehenean pasa behar da, goizeko 09:00etatik 13:00etara, saritutako zenbakia duen txartela eramanda. Bestela, oporren ondoren jaso ahal izango da. ||

❖ ITURRITXO AUZO ELKARTEA

Jaiotza jarriko dute gaur, Atarrabiyan

Iturritxo auzo elkartekoek jaiotza jarriko dute gaur, Atarrabiyo parkean, eta auzotako gazte eta helduei dei egin diete parte hartzeko. Hitzordua 10:30etan jarri dute. ||

➡ Jasota Bezala

6 Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa 6 Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira 6 Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Kontrakantxa, hiru urteren ostean ere pausuak emanez, hiru urte eta aurrera...

Egunak igarotzen dira, oharkabean, asteak eta hilabeteak zenbaki hutsez betetzen diren bitartean. Agerikoak dira ospatu beharrekoak, abenduaren 16a, halakoxea da. Hiru urte dira Hernaniko gazteok, berriz ere, bildu eta Kontrakantxaren bide luzean lehen pausuak ematen hasi ginela. Hiru negu igaro dira pareta hotz eta ilunetan argi izpia ikusi genuela. Hiru urte martxan hasi eta gure etxearen alde apustu eginez, eraikitzen hasi ginela.

Hilabete eta urteen joan etorrian bizitakoa ez da hitz hutsetan kontatzeko, baina gazteon etxearen hormak sendotzen doaz etengabe. Oihu eta isiluneak nagusitu dira denbora honetan, eta Kontrakantxaren behar eta nahiak lanean ilusioz aritzea ekarri du gurera. Ekintza ezberdinez koloretzatu ditugu orain arteko hutsune zuriak eta hemendik aurrera ere gure pintzelada finez marratzuko ditugu gure etxe, kale eta herriko txokoak.

2006ko abenduaren 16 hartatik, gaztetxeo paretak hainbat gertakizun jazo dituzte, batzuk ilusio, poz eta alaitasun osoz hartu dira. Beste batzuk, muga eta oztupoak ekarri dizkiguten arren, era batera edo bestera aurrera jarraitu ahal izan dugu.

Egun, gaztetxearen "azpi egiturak" konpondu eta sortuz doaz eta hilabete gutxira, gazteok, gure etxea, bame eta kanpotik eraikitzen hasi ahaliko gara. Esanguratsua da, elkarlana eta aurrera egiteko nahiak, behar dugun Kontrakantxa honetan ekin ahal izateko eta oztupoak gainditzeko indarrak areagotzen dituela. Hiru urte hauetan, zailtasunak gora behera, gaztetxearen suak piztuta iraun du eta hemendik aurrera, are sugar handiagoa erakutsiko du.

Honenbestez, gaurko eguna ospatzeko dugu, ametsak egi bihurtarazi dituen Hernaniko Gazte Asanbladako kideontzako, Kontrakantxa aurrera eramaten lan egin duten guztientzako, bertan joan etorriak egin eta modu batera edo bestera gure etxea bizirik irunaraztea lortu dutenentzako. Azken finean, hiru urte hauetan eraikitako pareta sendoak gauzatzeko ezinezkoa izan zen elkarlana, borroka, ilusio eta aurrera egiteko nahi amaigabearen sentimendu eta ideiarik gabe. Beraz, Mila esker eta Zorionak!

Lierni Mateo Eguzkitza
Hernaniko Gazte Asanblada

biokbi optika

Antziola 11
Tel: 943 33 68 86

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!!!

Orain beturreko graduatuak edo eguzkitako beturrekoak erosi eta opari bat egingo dizugu.

Asun Esnal
Bilxigintza

Enkarguko lanak, zilarra eta urraerakin.

Larramendi 3
HERNANI 20120
Tifa. 943 33 04 78

LIKIDAZIOA

URTARRILAK 5 AZKEN EGUNA EGUBERRI ONII

%50 REN DESKONTU JARAIKIN

Hernaniko Udala

IRAGARKIA:

2009 abenduaren 17ko 6501 (209 ak.) Errotza-Estele-aurza Toki erlijiole izikin erakleari buruzko iragarkia argi lortu da. Hain zuzen ere, berriro jarduera hau kutsatuta, 2010eko urtearen 25etik aurrera, erakle-erlijioak edo olegazioak egin ahal izateko.

Hernanin, 2009ko abenduaren 18an
Marian Beiliallarrangailia Lizentziatutako Alkatea

arrosak
edergintza

Antziola 9
Tel. 943 33 02 89

'Cavita'zioa
Liposukzioaren alternatiba

- Aparatologia azken berrikuntza - Tratamendu personalizatuak

AZAROAN ETA ABENDUAN PREZIO BEREZIAK
Hartu ezazu bonoa orain eta ondo datorkizunean egin ezazu tratamendua

Zatuz eta jaso ezazu behar duzun informazio guztia!

TERMO SALUD
cavitación

gorta 2,5kg

abdomena 2kg

isotzak 2kg

Bi hernaniar inputatuta, Txantxillako etxebizitza tasatuen zerrenda filtratzea egotzita

Udalak onartu aurretik, zerrendako izenak publiko egitea egozten zaie. Inputatuek asteartean deklaratu dute epailearen aurrean.

TXANTXILLAKO etxebizitza tasatuetan adjudikatutako pertsonen zerrenda filtratzea egotzita, bi hernaniarrek inputatu gisa deklaratu dute epailearen aurrean, asteartean.

Marian Beitialarrangoitia alkateak salaketa jarri zuen,

bere arabera, zerrenda hori Udalak onartu aurretik, argitara eman zelako, eta izenak publiko egitea delitua izan zitekeela iritzita. Ondorioz, Epaitegiaren bidez, ikerketa bat zabaldu zen. Abokatuak azaldu-takoaren arabera, ikerke-

tarekin identifikatu dira zerrenda «filtratu» zuten bi IP (ordenagailuen DNIA litzatekeena), IP horien jabeak izanda, bi hernaniar.

Udaleko foroan
Txantxillan egin diren etxebizitzetatik 33 etxebizitza

tasatuak dira eta otsailean, adjudikatutako pertsonekin zerrenda osatu zen Udalean onartu zedin. Abokatuak esandakoaren arabera, zerrenda hori Udalak onartu aurretik, Udaleko foroan argitaratzen hasi zen norbait, behin eta berriz. ||

❖ UDALA

Udalak onartu ditu, atez atekoaren galdeketa sistema jarri ondoren egitea, eta Aminetu Haidarrekiko elkartasun mozioa

PLENOA izan zen ostegunean Udaletxean, eta bertan, besteak beste, ondorengoak onartu zituzten:

Gobernu Taldeak idatzia aurkeztu zuen hondakin kudeaketaren inguruan galdeketa egiteko, eta Gobernu Taldearen eta Ezker Batuaren botuekin onartu zen. Bertan jakinarazten dute, galdeketa egitearen aldekoak direla, baina atez atekoa jarri eta herritarrek ezagutu ondoren.

Baita ere, Animetu Haidarren elkartasun mozioa

onartu zuten guztiek, PPek eta PSOEek izan ezik. Mozioak dio, besteak beste Marokoko Gobernuaren Mendebaldeko Sahararen Giza eskubideen bortxaketa areagotzen ari dela: «exigitzen dugu marokoar agintariak kendutako pasaporte eta dokumentua berehala itzultzea».

Horrez gain, onartu zuten, aho batez, *Abenduak 18: pertsona migratzaileen nazioarteko egunaren inguruan egindako adierazpena.* ||

❖ 2009 URTEKARIA

Historia, orain arte gertatutako berriak eta gaurkotasuna, 2009ko Urtekarian

2009KO Urtekaria herritarren eskura da dagoeneko. Atzo iluntzean aurkeztu zuten udaletxean Marian Beitialarrangoitia alkateak eta Idurre Lucasek. Salmentan ohiko lekuetan egingo da, hau da, Elkar, Leokadisti eta Sebas liburudendetan, eta prezioa 8 eurokoa da.

Historia, eta lehengo eta oraingo gertaerak biltzen dituen urtekaria
Azken urteetako urtekariak bezala, lehengo eta oraingo notizi eta erreportajeak

biltzen ditu 2009 Urtekariak. Marian Beitialarrangoitia alkateak adierazita-koaren arabera, bertan jasotzen dira erreportai historikoak, orain arte gertatutako ohartarazten lagunduko dutenak, eta gaurkotasun osoa dutenak.

Guztira 23 artikulua daude, Hernaniko edo inguruko egileek eginak, Alkateak adierazi bezala, «hernaniarrek eginak, Hernaniri buruz, eta hernaniarrentzat» ||

➔ Jasota Bezala

6 Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa 6 Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira 6 Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Abenduak 18: Pertsona migratzaileen nazioarteko eguna
Atzo izan zen, atzo, munduko nomaden eguna. Gizakiak berezkoa du joan etorrian ibiltzea. Leku zaharrak utzi eta berriak ezagutzeko. Lekuak espazio hutsak baina gehiago dira ordea. Lekueta bizi da jendea. Lekueta elkartzen da jendarte. Euskaraz badugu hitz polit bat hori azaltzen duena. Bizilekua. Bizitza egiten dugun lekua da, egungoa, oraina agertzen duena. Eta hori da garrantzitsua. Egutegia egutegi gure ingurunea den tokioak baikara. Jatorri anitza izanagatik, orain bertakoak gara denok. Pertsona bakoitzak historia desberdina uzten du atzean. Baina denak gara bat. Momentuko errealitatearen parte baikara guztiok. Horregatik egin behar dugu guztion elkartasunaren alde. Biografiak biografia, aukera paregabea baitugu elkar ezagutu eta elkarrekin hazteko.

Atzoko egunez, munduko hainbat txokotan defendatu ziren errealitate desberdinetako jendearen eskubideak. Kasu ugari, mugak jartzen baitzaizkie iritsi berriei bertako jendartearen parte izateko. Horregatik, herritar guztiei dei egin nahi genieke, migratzaileei elkartasuna adieraztera, eta pertsona hauen eskubideak urratzen direnean hauek salatzea. Udala ere, bere aldetik, -osteguneko udalbatza onartu zen adierazpenean jaso zenez- ildo horretan lan egitera, kultur aniztasuna lantzea eta elkarbizitza sustatuko duten ekintzak bultzatzea konprometitzen da.

Maddi Garcia
Inmigratio Saila

Vanesa eta Miguelo Harategia

GABONETAKO ORDUTEGIA
ABENDUAK 21,22 eta 23
09:00-13:30 / 17:00-20:00
ABENDUAK 24
09:00-14:00
ABENDUAK 25
10:30-14:00

AURREZ EGINDAKO JANARIAN (PLATOS PRECONGELADOS)
AUKERA ZABALA!...ETA ENKARGUZ:

Gabonetan Erreak: Txerrikumea Arkumea Oilaskoa Oilasko betea eta: Kaxuelak Pudina Arraiak Ehiza

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

HERNANI ENGLISH HIZKUNTZAK
(GURE INGELESA/IXEA)

ESKOLEN AZKEN EGUNA ASTEARTEA, ABENDUAK 22 HIRUHILABETEKO BERRIA URTARRILAK 7, OSTEGUNA

Hora Itrak or. da aste ahen eta sara-kenek eskolaan Erdiko maila gasteortzat 18:00-18:30 Cambridge Proficiency, 20:00-21:30 Cambridge First (4 aukerak)

Delta Alan/Jo: 943 33 11 05
Kale Nagusia 41 - 1

ANTZIOLA kafetegia

Abenduak 22an **ZOKETA MUNDIALA !!**
Urte baterako **OGIA DOHAIN !!**
Zetoz eta informatu zaitaz.

Abenduak 24an **Olentzerak bisitatuko gaitu, 11:00 13:00 !!**

Montevideo, 3 - Tel. 943 33 20 18 - HERNANI

J.A. TORRES -ARGAZKILARITZA- IMAGE CENTER

DESKARGA DOHAIN

ONDO-ONDO PASA GABONETAN !!!

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.

Errebelatu Digitala ordu 1-ean ARGAZKILARITZAN BEHAR DUZUN GUZTIA

Zure VHS, Mini dv, 8mm, Dvd-ra pasatzen ditugu.

BIDALI ZURE ARGAZKIAK EMAIL-ez
-fotostorres@telefonica.net

Atzieta kalea, 2 - Hernani ☎ 943 33 19 15 Idiazabal, 21 - Urnieta ☎ 943 00 96 19

Bertsoaren oihartzuna lehen ere Hernanin ez zen harrotza, baina joan den igandekoa, eta handik aurrerakoa, aspaldiko haundiena izan da. Igandean, Maialen Lujanbio hernaniarrak jantzi zuen Euskal Herriko Txapela, Barakaldoko BEC aretoan, eta 14.500 ikusleren

aurrean. Oihartzuna, dena dela, Euskal Herri osora zabaldu da, eta hernaniarraren izena, lehenaz gain, famatu egin da txoko gehienetan. Txapelaren ajeek zer gogoeta eginarazten dizkioten jakin asmoz, Lujanbiorengana jo du Hernaniko Kronikak.

MAIALEN LUJANBIO - Euskal Herriko Bertsolari Txapelduna

«Txapelagatik ardura plus bat ez dut sentitzen. Ardura da, zuregatik jendea plazara joan, eta zurea emango duzun ziur ez jakitea»

Gobara... alaba hitzarekin errimatzen duen hitz bat baino gehiago da...

Irudi hori etorri zitzaidan, txapela modu xeble xamarrean jarri behar izan nuelako, zapiaren gaintik. Aipamentxo bat egin nahi izan nien lehengo emakumeei eta oraingoei. Lehen zapi gainean eramaten zen xestoa edo erropa, eta orain, bapatean, txapela! Zapia eta txapelaren arteko paradoja hori aipatzearen bota nuen. Dena dela, nahiko kuerda ematen ari da.

Aurtengo txapelketa, medio guztietan atera da, inoiz baino oihartzun haundiagoa izan du txapelketak.

Txapelketa Nagusiak beti izan du oihartzun haundia. Baina bai, dimentsioa gero eta haundiagoa da eta oihartzuna ere bai. ETBn izugarriko numeroak eman ditu, pentsa ezinekoak... 400.000 ikusle pasa. Hori izugarria da. Ondo egindako lan baten emaitza da.

Bertsozale Elkartea beti izan da arrakasta horiek neurtu zalea, eskue-tatik aldegin ez dezaion. Hala ere, euskeraz, eta kulturagintzan egiten den ekitaldi haundiena da, eta daukagun panorama edukita, horrelakoak poztutzeak dira, eta indarra hartzeak.

Finalean ikusten zen emozio kolektibo bat; jendea zerbaiten gose.

Bai, baina finalere nik sentsazio hori izaten dut. Zoritxarrez, panorama sozio-politiko-linguistikoa dena dela-



Maialen Lujanbio, Leokako labaderoan.

ko. Eta benetan izaten da, laboratorio, gune itxi berezi bat bezalakoa. Han bizi diren emozioak bertsoen edukiaz aparte, badute konponente sozial bat, gure egoerak eragindako sentimenduak dira. Zerbait baikorra izateak, zerbait kreatiboa, eta euskerazkoa, kriston indarra ematen digu, eta horrelako komunio, emozio konpartitu bat sortzen da.

Emozio horietan parte handi bat zuk izan zenuen. Jende asko identifikatu da Maialenek esan dituenekin. Ze saiakera dago horren atzean?

Beste bertsolariekin ere identifikatzen da jendea, ez nerekin bakarrik. Bakoitzak dauka bere gertukoena. Baina orokorrean hitz eginda, nire ahalegina da, nigandik hitz egitea, eta horrek bihurtu dezala nik esaten dudana sinesgarri. Hori da ahalegina. Eta hor jendea identifikatuko da edo ez. Ahots bat izan nahi nuke, bere xumean, beretik hitz egiten duena, bestelako diskurtso asmorik gabe. Eta nik uste, konexioa hortik lortzen dela.

Identifikatu edo ez, sinesgarritasuna da hor klabea. Horren bila gabiltza gu. Ahots propio bat bilatzen dugu, jende aurrean kontziente izatea zer esatera goazen. Denok goaz horra, eta ez dugu guk asmatu.

Alde horretatik, gustora zaude lortu duzunarekin?

Bai; txapelketetan orokorrean, nahiko gustora.



Amegar
etxe tresnak - altzarriak
Zorionak eta Eguberri On guztioil

Txirrita kalea, 13-15
Tel.: 943 55 11 25 - Faxe: 943 55 16 03



Eboluzio baten emaitza al da hori?
Nik niregan sentitzen dut, gogoeta baten emaitza bezala. Baina oso gauza bitala da hori. Zu ere 20 urterekin non kokatzen zaren, edo 33rekin, ez da berdina. Eta 45ekin irudituko zait orain beste puntu batean nengoela.

Etengabeko analisi bat da, eta analisi horrek eramatan zaitu pixkanaka gauzak aldatzera: doinukera, kantakera, esateko modua, gaiak heltzeko modua... Baina, ez egun batetik bestera, hori da gogoeta prozesu baten puntu jakin bat. Ez gara heldutasunera iritsi, baina orain, 20 urte genituenetik, beste puntu batean gaude. Orain propioagoa da egiten duguna.

Zuen lana, orduan, ez dago oraindik bukatua.

Ez, dudarik gabe ez. Bestela erretiratu egingo ginatke! Edozein jardun artistikok eboluzio-natzen du; eta *bidetxur* bat bilatu, eta jarraitzen diozu... eta kriston emaitzak ematen dizkizu! Gero, nekatzen hasten zara bide horretan, edo agortu egiten da... eta beste bide baten bila hasten zara.

Edo zure burua ukatzen... Artistikoki ukatze hori oso tipikoa da. «Ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea» hori da. Eta beste bide bat bilatzen duzu, eta igual jatorrira bueltatzen zara, baina buelta oso bat emanda.

Mugimendu hori da orduan klabeetako bat

Bai, kuestionatzea eta bilatzea. Eta bilatzen duzu bide bat, bat-

zuetan emankorra, besteetan antzua... besteetan, emankorra agortu egiten da...

Gaiak zenbat baldintzatzen dute zuen ahalegina?

Gaiak baldintzatzen dute; du-darik gabe. Hala ere, gaur egun txapelketetan-eta gaiak nahiko zabalak jartzen dira, eta bakoitzak heldu diezaieke nahi duen lekutik.

Normalean, ez bazaituzte oso espazio txikian uzten, maniobratzeko aukerarik gabe, zuk zure ikuspuntua landu dezakezu gai horri heltzeko. Askotan zure ahots hori ez dago hitz esplizitotan, baizik ikuspuntuan. Gaiak eskatu behar zaie margen hori uztea. Gaiak eskatuko nieke espazioa uztea.

Aurtengo gaiak gustatu zaizkizu?

Bai, orokorrean bai. Eztabaidatu liteke, drama gehiegi izan den edo ez; umorea bideratuegia ote dagoen... Baina orokorrean gaiak onak izan dira.

Amets Arzallus kontrario gogorra izan zenuen.

Bai, bai. Nik banekien Ametsek ze maila zeukan, eta gainera grinarekin egongo zela. Egia esan, kriston poza eman zidan berarekin buruz burukora pasatzeak.

Berezia izan zen; konexioa izan dugu aurtengo txapelketan. Oso hurbil egon gara, eta kriston miresmena diogu elkarrri. Amets aritu zen goizean goizetik ni animatzen. Nik banekien maila izugarria emango zuela, eta ez zela kokilduko. Eta saioa bukatzean, nola nire-

arekin konforme geratu nintzen, egin nezakeena eginda, pentsatu nuen: «orain Ametsek irabazten badu, kriston poza hartuko dut».

Jenerazio baten txapela izango dela aipatu duzue.

Gu talde bezala sartu ginen plazara, eta guk beti eduki dugu taldearen kontzientzia hori. Zergatik? Gu sartu gine-



Txapela jartzen duen bigarren hernaniarra zara. Lehenengo hark (Txirritak) zer esango ote luke?

Kristona da zure burua haren titulo berarekin ikustea. Gustora adituko nuke zer esango lukeen. Ezin dut imaginatu, baina seguru sorpresa bat emango lida-keela.

Bilatu nahi izan dizkizute antzekotasunak, bertsokeraz, familiaz...

Familiaz, harreman zuzen-zuzenik ez daukagu. Bertsotan, nahi gabe ere, Hernaniko bertso eskolakoek hortik jan dugu, eta pixka bat pegatuko zen.

nean, bertsolari gazte asko ez zebilen. Gure belaunaldia, gazte talde bezala sartu zen. Gazte saioak sortu ziren, eta gazte asko inguratu ziren... eta hor sortu zen mobida berezi bat: estetika diferenteko jendea hasi zen etortzen, mundu erreferentziala aldatu zen, gusto musikalak, estetikoak. Eta gure taldeak kontzientzi hori izan dugu: Unai, Igor, Jon, Irazu...

Eta ia konturatu gabe pasa gara bertsogintzaren motor izatera. Eta horregatik, talde horri zegokion erreleboa hartzea. Eta neurri batean neuri tokatu zait aurpegia ematea.

Erresposibilitate handia sentitzen al duzu orain?

Ez hainbestearinokoa, ze gaur egun, neurri batean, plazen pisua geure gain dago.

Hasi ginenean besteen babesean hasi ginen, eta guk ahal genuena egiten genuen. Baina iritsi zen momentu bat, plazetan Egaña, Lizaso eta abar ez zeudena, eta konturatzen ginena, saioa guk atera behar genuela aurrera. Ardura, beraz, lehen ere sentitzen nuen, eta txapelagatik ardura plus bat ez dut sentitzen. Ardura da, zuregatik jendea plazara joaten denean, zurea emango duzun pentsatzea.

Ze harrera izan duzu Hernanin?

Badakit saioa jende asko ikusi zuela, bai etxean eta bai tabernetan. Giroa sumatzen zen, eta esaten zidaten poz hori bazegoela herrian. Pozgarria da jende hori guztia harreraren ikustea. ■

«200leko txapelketan irudien mundu horrekin, sujerentziaren mundu horrekin nenbilen. Kontaketa irudien bidez, eta esan baino sujeritu, eta hor nenbilen. Aurten berriz ez dut nahi izan hain poetikoki esan gauzak, prosaikogo, narratibogo, eta iritzira gehiago etorrita. Edertu baino idortu egin nahi nuen bertsokera».

«Ametsekin bertsokeran nahiko hurbil sentitzen naiz. Egia da, saioaren bukaerako lanetan bi estilo ezberdin ikusi zirela, baina nik sentitzen dut bertsokeran berez, nahiko hurbil gaudela».

«Prestaketan, igual ari zara leitzen liburu bat, interesatzen zaizkizun hitzak lantzen... baina gero lanketa nagusia, jarrerara da, halako esponja jarrerara bat, alerta etengabeko jarrerara batean. Askotan txikikeriatan dago magia, igual enkargutara dijoan pertsona baten deskripzioan dago klabea».

GABONETAKO ESKAINZA BEREZIAK

ibai mendi

Nafar kalea 23 - 943 33 37 24 - HERNANI

Goretex txaketa

trangoworld 179'00€

Shell Stretch
galtza elastikoa

TERNUA 79'95€

Soft Shell
Megatex forroa

89'90€

Shell Stretch
galtza elastikoa

trangoworld 79'95€

Bi makil

ALTUS 29'95€

Polainak

ALTUS 19'95€



Trekking zapatilak

THE NORTH FACE 59'95€

Trekking botak

trangoworld 99'95€

Trekking zapatilak

- umea -

SALEEMOV 29'90€

Txamarra

Hotzaren aurkakoa
eta inpermeablea
- mutikoa -

39'90€

Txamarra

Hotzaren aurkakoa
eta inpermeablea
- neskatoa -

39'90€

◆ ERREMONTA - JAIALDIA GAUR GALARRETAN

Barrenetxea eta Zubiri, hernaniarra eta goizuetarra, debutatzaile gaur, Galarretan

Aurten ere Galarretak 4 gazteri emango die aukera profesionaletan jokatzeko. Gaur dute aurreneko partidua elkarren kontra, 16:00etan.

LAU gaztek debutatuko dute gaur Galarretan, profesional moduan; tartean, hernaniarra bat eta goizuetarra bat dira. Elkarren kontra ariko dira gaur lau gazteak: Urrutia II-Barrenetxea IV, Oñatz-Zubiri. Jaialdiko lehen partidua izango da, 16:00etan, Galarretan.

Bi gipuzkoar eta bi nafar

Gipuzkoarrak dira bi, Endika Barrenetxea (Hernani) eta Oñatz Gonzalez (Andoain); eta nafarrak beste biak: Aritz Zubiri (Goizueta) eta Oskar Urrutia (Saldias). Afizionatutan urte batzuk egin dituzte, eta orain izango dute aukera, urte hauetan ikasi dutena erakusteko.

Endika Barrenetxea hernaniarra 19 urte ditu, atzelaria da, eta 3 urte daramazki afizionatutan. Barrenetxea IV bezala jokatu du, familian beste hiru bai baitira profesionaletan jokatuak: Jose Mari aita, eta bi lehengusu, Iñaki eta Aitor.

Aritz Zubiri goizuetarra 22 urte ditu, atzelaria da, eta 6 urte daramazki afizionatutan. Jokua ondo ezagutzen du, eta gaur du urteetan desiratu duen bere aukera.

Profesionaletan hilabete batzuetako kontratua egin die enpresak, eta hilean 6 partidua inguru jokatu dituzte; proba hori gaindituta, pixkanaka euren postua lortu beharko dute onenen artean. ||



Aritz Zubiri goizuetarra eta Endika Barrenetxea hernaniarra.

◆ FUTBOLA - Jubenilen Liga nazionala

Hernanik Antiguoko izango du aurrez aurre gaur arratsaldean, Zubipen

Eguraldi txarra dela eta, Gipuzkoako Kirol Federazioak bertan behera utzi ditu gaurko kirol jardunaldi guztiak (federatuak eta eskolarrak). Hernaniko futbol talde gehienek Gipuzkoa mailan jokatzeko dutenez, ez dute partidurik izango asteburu honetan. Liga nazionalean jokatzeko duten jubenilek, ordea, partidua izango dute. Gaur jokatu dute Antiguokoren aurka. Zubipen izango da arratsaldeko 18:30etan. ||

◆ JUDOA

Hernani Judo Elkarteko erakustaldia izango da gaur arratsaldean

Asteburu honetan, judo erakustaldia egiteko zen Hernaniko judo elkarteak, baina Gipuzkoako Kirol Federazioak kirol ekintzak bertan behera uztea erabaki duenez, eguraldi txarra dela eta, bertan behera geratu dira ia denak. Elkartetik jakinarazi dute elkartearen erakustaldia egingo dutela. Gaur arratsaldean izango da. Lehenengoak 5 eta 6 urtekoak izango dira, 16:00etatik hasita. Ondoren, 7 urtekoek egingo dute erakustaldia, 17:00etan; eta azkenik, 8 eta 9 urtekoek, 18:00etan. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I URTEBETETZEA

† **Teodora Iriberrri Biurrarena**

ANDREA

(Francisco Galdeanoren alarguna)

2008ko abenduaren 14an hil zen, 82 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

-Goian bego-

Seme alabak: M^a Kristina (Jose Manuel Lujanbioren alarguna), M^a Carmen eta Valentín Horriño, Jose Ramon eta Garbiñe Elizegi, M^a Jose eta Juan Ramon Zabaleta, Juan Ramon eta Rakele Fraile, Jose M^a; bilobak: Kistiñe eta Asier, Igor eta Oihane, Arantxa, Unai, Miren, Irati, Urtzi eta Miriam, Txaber, Jon, Maialen eta Oihane; birlobak: Lur, Aratz eta Inge; anai-arrebak: Pepita (†), Jose M^a (†), Hipolita, Bautista eta Sebastiana; ezkon anai-arrebak, ezkon izeba, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitzela **BIHAR, IGANDEA, goizeko 10:00etan, Ereñotzuko SAN ANTONIO** parroki elizan egingo **Urtebetetzeko mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2009ko abenduaren 19an

FUNERARIA ORBEGOZO
ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

ORBEGOZO
FUNERARIA
TANATORIO · BEILATOKIA

Eguberri on guztioi!

- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxerekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

electrodomesticos
ANEXO
etxetresnak

Gabonak ondo pasa!!

ANEXO

MOTA GUZTIETAKO ETXETRESNAK

Zure etxeak behar duena...
guk daukagu !!

Kale nagusia, 59 (zinkoenca) - 20120 Hernani Tfnoa: 943 55 03 81

Azaroan eta abenduan
BERRIAK TXARTELA-rekin
erosketak eginda
saria jaso dezakezu, 50€ arte!

HAU DA HAU PAOTXA!



Abenduan, Karabelgo
gasolindegian Berriak txartela
erabiltzen dutenen artean,
32"ko Samsung Telebista zozketatuko dugu.

ZOZKETA URTARRILAREN 16AN

Zorionak eta Eguberri On guztioi!!

☎ **TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauez:** Castilla Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA
GAUR Hotz haundiago egingo du. Elurra 100-200 metrora egingo du. Arratsaldean, garbitzen joango da, eta temperatura asko jaitsiko da. Izotza botako du.
BIHAR Goizaldean hotz haundiago egingo du. Elurra 200 m-ra botako du. Arratsaldean, ostarleak zabaldu eta hego-haizea ibiliko denez termometroak igo egingo dira. (euskaime)



DIASPORAKO GAZTE ARGENTINARRAK

Euskal gazteriari mugagabeko babes

Kronikara bidalitako idatzian, babes ematen diete «Euskal Herriaren itxaropena deuseztatu nahi dutenen aldetik, injustizia jasaten dutenei».

DIASPORAKO Gazte Argentina-
rek, tartean, Hernaniko oinordekoak, idatzi bat bidali dute Kronikara, «Proiektu guztiak, eskubide guztiak» lemarekin bat eginez, euskal gazteriari mugagabeko babes eman nahian. Ehunka kilometrotara egon arren, euskaldunen eskubideen alde borrokan jarraitzen dutela azaldu dute. Horrez gain, guztia kriminali-

zatea euskal gatazkaren irtenbidean atzera pausoa besterik ez dela diote eta euskaldun guztiak dei egin diete: «Elkarrekin, zutik eta tinko, egon behar dugu erasoaldi berri honi aurre egiteko; kontuan izan, gure sostengu, konpromiso, ilusio eta uste osoa duzuela, Euskal Herria aske, independente, eta burujabea eraikitze-ko». ||



IRAGARKI MERKEAK

Hernanin duplex berria salgai, estreinatzeko. Kale Nagusian (sarrera Tilosetatik), 130m², 3 logela eta 2 komun. 462.000€ (76,8m). Deitu: 656 316 031.
Emakume euskaldun bat behar da adineko pertsona bat zaintzeko. Kotxeduna. Deitu: 656 411 932.
Pertsona bat behar dugu etxeko eta sukaldeko lanetarako. Goizeko 8:30etatik eguerdiko 13:30etara. Deitu: 685 725 816
Alokatzeko edo erosteko etxe txiki baten bila nabil, Hernanin edo inguruetan (berritua edo ez). Deitu: 943 33 11 83 - 656 721 492
Etxe bila nabil, 2-3 gela dituen. Lehenbailehen sartzeko. Pertsona arduratsua naiz. Deitu: 638 349 760
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea,


pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna.** Deitu: 616 886 660.
Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, **gabonetako eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan**, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzietan 2, behea.** Tel. 943 55 32 78.
Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo justea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2).** 943 55 76 76
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajusteo neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Atez ateko zalantzak argitzen

Zenbat gai organiko jaso da Usurbilen atez atekoa martxan jari denetik?

210.000 kilo baino gehiago.

Bidali zure galdera inolako konpromiso gabe: info@hernanibidaia.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernanibidaia.net



Jorge ta Yola
ARRI
taberna
Pizzak eta Pasta freskoak
Bixera eramateko prestatzeko ditugu
Egin ezazu zure eskaera telefonoz
☎ 943 33 34 37
Bidubieta plaza 2 (Antziola buztin)

ADI !!! ...
...GABONETAN !
Astelehena 21 eta Astelehena 28 IREKITA
EGUNERO EGUERDITAN ZABALIK
Ondo ondo pasa gabonetan !!!
GOXATU GURE TERRAZAN !!
(Umeen jolaserako proposa)

JOMERI
EDARITEGIA
Kale Nagusia, 7
Tel.: 943 55 00 32

PEÑA
OKINDEGIA - JANARIDENDA
Eguneroko zure beharrei erantzuteko, Kale Nagusian gaude.
EGUBERRI ONII
Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

MASUSTA EKODENDA
PRODUKTU NATURALAK MASUSTA
Elkagai Biologikoak Barazki eta Fruta Ekologikoak Senda Belarrak Kosmetika Naturala Liburuak...
EGUBERRI ONII
KARDABERAZ, 43
943 55 57 10

HERNANI BIDAIAK
1. Urbieta, 6
943 33 00 49
hernani@telekoro.es
www.hernanibidaia.com

TERRA MITICA

GABONETAKO ZOZKETETA
Aurten 4 urte beteko ditu gure lehiaketak. Gero eta partaide gehiago ditugu. Gogoratu, PARTE HARTZEA dela garrantzitsua eta horrela sari nagusiaren ZOZKETAN sartuko zara.

Zozketa eguna: URTARRILAREN 4an GURE BULEGOAN, ARRATSALDEKO SEIETAN.

BALDINTZAK:
Gala: "BIDAIAK"
Adina: 4-11 URTE
EPEA: urtarrilaren 8a baino lehenago.

SARIA:
TERRA MITICAN
2 heidu eta 2 umeentzako egonaldia.
7 egun (6 gau) PC + 2 egunetako sarrerak